



Usurbilgo Udala

2025/12/09

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2025EKO ABENDUAREN 9AN
GOIZEKO 9:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Agurtzane Solaberrieta Mesa.

Zinegotziak: Ainhoa Arrozpide Landa eta Joxe Mari Lizaso Azkonobieta.

Idazkaria: Leire Ucin Soraluze.

Ez dira bertaratu: Iratxe Begiristain Otegi eta Xabat Beloki Segurola.

1.- 2025EKO AZAROAREN 11KO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.

Batzarkideek 2025eko azaroaren 11ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

**2.- 2024KO ENPLEGU PUBLIKORAKO ESKAINTZAREN AKATS ZUZENKETA
ONARTZEA (2024FOPE0001).**

Ikusirik

2023ko abenduaren 20ko datarekin Udalbatzak 2024ko Lanpostuen Zerrenda eta Plantilla Organikoa onartu zituen. Gerora, 2024ko otsailaren 29ko eta ekainaren 27ko bilkuretan horien aldaketak onartu zituen.

2024ko abenduaren 20ean 2024ko Enplegu Publikoaren eskaintza onartu zen. Orain berriz, eskaintza horren akatsa zuzentzea beharrezkoa ikusi da.

Kontutan harturik

Urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bategineko 70. artikulua eta Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 52. artikulua dioena.

Estatuko 2023. urteko aurrekontu orokorreari buruzko abenduaren 23ko 31/2022 legearen 20. artikulua.

Alkatetzaren 2023/1089 zenbakidun dekretuan Enplegu Publikoaren Eskaintza onartzeko ezarritako eskuduntzen egikaritzan, Tokiko Gobernu Batzarrari eginiko lagapena.

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA



Usurbilgo Udala

2025/12/09

Lehena: 2024ko Enplegu Publikorako Eskaintzaren akats zuzenketa onartzea kale garbiketa eta mantenu ofizial plazaren txandan:

- Esaten duen tokian “barne promozioa”.
- Hauxe esan behar du “librea”.

Bigarrena: Enplegu Publikoaren Eskaintza Udaleko egoitza elektronikoa, iragarkien taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da denek ezagutu dezaten eta, interesdunek nahi izanez gero, errekurtsioak jar ditzaten. Haren laburpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

3.- 2025EKO ENPLEGU PUBLIKORAKO ESKAINTZA HANDITZEA ONARTZEA (2025FOPE0001).

Ikusirik

2024ko abenduaren 24eko datarekin Udalbatzak 2025eko Lanpostuen Zerrenda eta Plantilla Organikoa onartu zituen. Gerora, hainbat aldaketa onartu dira.

2025eko urriaren 13ko 195 zenbakiko GAO-n 2025ekoOPE-a argitaratu zen.

Orain berriz, Enplegu Publikorako Eskaintza handitzea proposatzen da.

Kontuan harturik

Urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bategineko 70. artikulua eta Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 52. artikulua dioena.

Estatuko 2023. urteko aurrekontu orokorreari buruzko abenduaren 23ko 31/2022 legearen 20. artikulua.

Alkatetzaren 2023/1089 zenbakidun dekretuan Enplegu Publikoaren Eskaintza onartzeko ezarritako eskuduntzen egikaritzan, Tokiko Gobernu Batzarrari eginiko lagapena,

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehena: 2025eko Enplegu Publikoko Eskaintza handitzea:

Sailkapen taldea	Eskala	Azpieskala	Izena	Hizkuntza eskakizuna	Kopurua	Txanda	Lanaldia
C2	AB	ZB	Igestsero ofizial 1	B2	1	Irekia	% 100
C2	AB	ZB	Igeltsero ofizial 2	B2	1	Irekia	% 100
E	AB	ZB	Operario laguntzailea	B1	1	Irekia	% 100
E	AB	ZB	Garbitasun koordinatzailea	B2	1	Barne promozioa	% 100



Usurbilgo Udala

2025/12/09

Bigarrena: Enplegu Publikoaren Eskaintza Udaleko egoitza elektronikoan, iragarkien taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da denek ezagutu dezaten eta, interesdunek nahi izanez gero, errekursoak jar ditzaten. Haren laburpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 09:50k direnean. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.